

## Estatutu berrien idazketari aldaketa-proposamenak (LAB sindikatua)

Art.	Proposamena	Argudiatzea
4	<p>“1. EHUren misioa da komunitate konprometitu eta arduratsu bat osatzea, bikaintasun zientifikoa bilatuko duena, ikasleei kalitateko goi mailako ikasketak emango dizkiena eta euskal gizartearen eta mundu osoaren ongizatea bultzatuko duena jardun akademikoaren, irakaskuntzaren eta ikerketaren bitartez, eskuratutako jakintza sare sozioekonomiko eta kulturalera transferituz, giza garapen jasagarria sustatze aldera Europako Batasunaren esparruan eta Nazio Batuen Erakundeak garapen globalerako ezarritako agendaren baitan, eta euskal kulturaren berezko balioak zainduz, eta, bereziki, euskararen erabilera normalizatua indartuz unibertsitatearen jardunean.” paragrafoan kendu Europako Batasunari aipamena.</p>	<p>Europako Batasuna Europako kapitalismoaren ordezkaria da, eta beste herriekiko zein Europa barruko herri batzuekiko jarrera inperialista dauka. Are gehiago, elite ekonomikoen mesedetara diseinatuta egoteaz gain, belizismoa elikatzen du.</p> <p>Europako Batasuna ezin du izan EHUrekiko erreferentea, nahiz eta Euskal Herria Europan kokatuta egon. Europearrak gara, baina ez Europako Batasuna horren defendatzaileak.</p> <p>Aipamen hori kentzeak ez dio ezer kentzen EHUko misio eraikitzaileari.</p>
4	<p>“3. Hauek dira unibertsitatearen helburuak: c) Jakintza gizarteari transferitzea, aplikazio praktikoa izan dezan arlo zientifiko, teknologiko, sozial, humanistiko, artistiko eta kultural guztietan.” paragrafoari, honako esaldi hau gehitu amaieran: “, armagintzarekin eta beste herrien zapalkuntzarekin lotura duten kolaborazioak izan ezik”</p>	<p>Unibertsitateetan eta EHUen bertan garatutako aplikazioak eta ezagutza armagintza-enpresetan ere aplikatu eta aplikatzen da. Printzipio etiko moduan jaso behar da halako oinarrizko puntua. Era berean, beste herrien zapalkuntzarekin lotura duten enpresa, instituzio eta ikerketa-taldeen kolaborazioak EHUko transferentziatik kanpo geratu behar dira.</p> <p>Adibide argiena, gaur egungoa, sionismoaren parte diren edo sionismoaren kolaboratzaileak eragileetan daukagu, Palestinako herriaren genozidioan erantzukizun dokumentatua daukatena.</p>
6	<p>“3. Era berean, sustatuko du zientzian erabiltzen diren beste hizkuntza batzuk jakitea eta jarduera akademikoetan erabiltzea.” Paragrafoa honako paragrafoarekin ordeztu:</p> <p><b>“3. Sustatzeko hizkuntza nagusia euskara dela oinarritzat hartuta, EHUk sustatuko du zientzian erabiltzen diren beste hizkuntza batzuk jakitea eta jarduera akademikoetan erabiltzea.”</b></p>	<p>Hizkuntz ez-ofizialak ezin dira sustatu “era berean”. Lehentasuna euskarak izan behar du, hizkuntza minorizatua baita eta bere etorkizuna bermatuta ez baitu.</p> <p>Zientzian erabiltzen diren hizkuntzak ez daude arriskuan eta erabiliko dira, zientzia arloan ezinbestekoak baitira.</p> <p>Arriskua dago euskara eta hizkuntza ez-ofizialen arteko lehian (baita gaztelaniarekiko lehian), non EHUko baliabideen horniduran euskarak asko galtzeko duen.</p>
18	<p>“1. Irakasleen Batzordea da EHUko irakasle-ikertzaileen alorrean aholkuak eman eta proposamenak egiteko kide anitzeko organoa. Batzordeko burua errektorea izango da, edo horretarako eskuordetza daukan errektoreordea, eta batzordeko kideak izango dira hamabi irakasle-ikertzaile iraunkor, irakaskuntzan eta ikerketan gutxienez bost</p>	<p>UIBren erabakiak berebiziko garrantzia daukate lanpostu zerrendaren aldaketei dagokienez, eta eremu zabalagoa izan behar da. Bilera asko badituzte ere, on-line egiten dira, eta horrek ahalbidetzen du bileretan parte-hartzea. Horrez gain, kide gehiago izanda, jakintza arlo baten kideren batek ezin badu bileran egon, bilera egin</p>

	<p>urteko esperientzia dutenak, jakintza adar desberdinetakoak. Kide horietako bi errektoreak izendatuko ditu.” Paragrafoa honako paragrafo honekin ordeztu:</p> <p>“1. Irakasleen Batzordea da EHUko irakasle-ikertzaileen alorrean aholkuak eman eta proposamenak egiteko kide anitzeko organoa. Batzordeko burua errektorea izango da, edo horretarako eskuordetza daukan errektoreordea, eta batzordeko kideak izango dira <b>hamabost</b> irakasle-ikertzaile iraunkor, irakaskuntzan eta ikerketan gutxienez bost urteko esperientzia dutenak, <b>jakintza adar bakoitzetik 3 kide izanda.</b>”</p> <p><i>*Gaztelaniazko bertsioak agertzen da “de las que dos serán designadas por la rectora o el rector” eta euskarazko bertsioan ez.</i></p>	<p>ahal izango litzateke parte-hartzaile kopuru nahikoarekin (jakintza arlo bakoitzerako kide kopuru minimo bat ezar daiteke UIBren araudian).</p> <p>Prozesua zuzenagoa da UIBren kide guztiak (errektoreordea salbu) irakasleek hautatuak badira, eta ez errektoreordeak zuzen izendatuta.</p>
18	<p>“c) Unibertsitateko irakasleen kidegoetako plazak eta lan kontratudun irakasle-ikertzaile iraunkorren plazak betetzeko lehiaketak ebatziko dituzten epaimahaietako kideak proposatzea errektoreari.” Paragrafoa honako paragrafoarekin ordeztu:</p> <p>“c) Unibertsitateko irakasleen kidegoetako plazak, lan kontratudun irakasle-ikertzaile iraunkorren plazak, <b>ikertzaile iraunkor doktoreen plazak eta irakasle laguntzaile doktoreen plazak</b> betetzeko lehiaketak ebatziko dituzten epaimahaietako kideak proposatzea errektoreari.</p>	<p>Bi kolektibo horien Ebaluazio-batzordeetako kideak ere UIBk proposatu beharko lituzke. Kasu batean, plaza iraunkorrek dira, eta bestean, plaza iraunkorrek ez badira ere, ia kasu guztietan, irakasle laguntzaile doktore plaza lortzen duena irakasle iraunkorrera pasatzen da urte batzuk beranduago. Beraz, lehia hori gakoa da. UIB kide gehiagorekin hornitzeak erraztuko luke bi kategorian hauen lehiaketen Ebaluazio-batzordeak aztertzea. Gaur egungo estatutuetan ez da zehazten bakarrik lanpostu iraunkorretarako izan behar denik (48. Artikulua, 2.c puntua)</p>
21	<p>“c) Irakasleen eta ikertzaileen lana kontrolatu eta ebaluatzeko prozeduretan parte hartzea, eta irakaslanaren, ikerlanaren eta kudeaketa lanen berri ematea urtero atxikita dagoen sail, ikerketa institutu edo ikerguneari.”</p> <p>Kendu puntu hau.</p>	<p>Irakasle bakoitzari irakaslanaren, ikerlanaren eta kudeaketa lanen berri ematea eskatzea beste ataza bat suposatzen du, eta aktibitate horiek digitalizatuta daude (emandako klaseak GAURren, argitaratutako artikulua eta lanak web-ean eta datu baseetan, kudeaketa aktibitateak EHU bertan...).</p> <p>Beste alde batetik, ez dago zehaztuta nori eman behar zaion horren guztiaren berri, ezta nork kontrolatuko duen edo nola. Bermatu behar da langile bakoitzak egin behar duen lana egiten duela, baina puntu honek ziurtasunak baino zalantzak sortzen ditu...</p>
27	<p>“3. Aurrekontuan diru hornidura daukaten lanpostu guztiak agertuko dira lanpostuen zerrendan, irakasle-ikertzaileen kategorien arabera sailkatuak. Lanpostuen zerrendan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuaren izena, sailkapen profesionaleko taldea, kasuan kasuko kidegoa, eskala edo kategoriala, lanpostua betetzeko sistemak eta</p>	

	ordainsari osagarriak.” paragrafoan, jaso beharrekoen artean gehitu “hizkuntza profila”.	
33	“2. Europako Batasuneko kide diren herrialdeetako unibertsitateetako irakasleak ere epaimahaietako kideak izan ahalko dira, katedradunen, irakasle osoen edo unibertsitateko irakasle titularren parekoa den maila lortu badute beren unibertsitatean.” paragrafoan txertatu agregatu figura ere.	Katedraduna eta irakasle osoa aipatzen dira, baina titularrarekin batera irakasle agregatua ez (edo, USLOn jasotzen den moduan, “profesorado permanente laboral”). Gaztelaniazko bertsioan irakasle osoak ez dira aipatzen.
33	“4. Era berean, kontuan hartuko da deitutako plazaren hizkuntza eskakizuneko hizkuntzen jakite maila. Euskaraz jakitea derrigorrezkoa den plazen kasuan, edo derrigorrezkoa izateke lehiakideren batek proba euskaraz egin nahi duela adierazten duenean eskarian, bermatuko da epaimahaia osatzen dutenek autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan jarraitu ahal izango dituztela probak, eta horretarako behar diren baliabideak jarriko dira. Horrelakoetan, epaimahaiko kideetako bat, gutxienez, elebiduna izango da.” Paragrafoa honako parágrafo honekin ordeztu: “4. Era berean, kontuan hartuko da deitutako plazaren hizkuntza eskakizuneko hizkuntzen jakite maila. Euskaraz jakitea derrigorrezkoa den plazen kasuan, edo derrigorrezkoa izateke lehiakideren batek proba euskaraz egin nahi duela adierazten duenean eskarian, bermatuko da epaimahaia osatzen dutenek autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan jarraitu ahal izango dituztela probak, eta horretarako behar diren baliabideak jarriko dira. Horrelakoetan, bost kideetako epaimahaietan bi kide eta hiru kideetako epaimahaietan kide bat, gutxienez eta hurrenez hurren, elebidunak izango dira.	Euskara daukaten plazetan, bost kideetako bi euskaldunak izateak berme gehiago ematen du euskararen jariakortasunaren ebaluazioari begira. Izan ere, araudian jasotzen da plazaren hizkuntzetan hauatagaiak daukan jariakortasuna ebaluatu behar dela. Lehiaketetarako araudian ez dago horrela jasota, baina estatutuak maila gorakoak dira, eta lehiaketetarako araudian aldaketak txerta daitezke.
38	Gehitu paragrafoaren amaieran: “Batzordearen zazpi kideetako bost, gutxienez, euskaldunak izango dira (C1 maila izango dute).”	Lehiaketa euskaraz egiten bada (aurkeztutako dokumentazioa euskaraz, aurkezpenak euskaraz...), batzordeetako gehienek euskara jakin behar dute. EHUn lehiaketara ateratzen diren irakasle lanpostu gehienak euskara profila daukate.
39	“2. Erreklamazio Batzordeak hiru hilabete izango ditu erreklamaturako proposamena berretsi edo ezesteko, eta batzordeak erabakitakoarekin bat datorren ebazpena emango du errektoreak. Aipatutako epea igarota ez bada jakinarazi ebazpenik, jarritako erreklamazioa ezetsi egin dela ulertuko da.” Paragrafoan kendu “Aipatutako epea igarota ez bada jakinarazi ebazpenik, jarritako erreklamazioa ezetsi egin dela ulertuko da.”	Erantzuna eman behar da, zentzu batean edo beste batean. Erreklamazioa aurkeztu duenak erantzuna merezi du. Ebazpenik ez jasotzearen atzean egon daiteke tramitazioan espedientea galtzea. Erantzunik ez badago nahasmena sortzen da, eta interesatuari urduritasuna sortzen zaio arrazoirik gabe. Bere erreklamazioan eskatutakoari ezetza ematen bazaio, komunikatu behar zaio ahalik eta lasterren.
42	“3. Plaza horietara aurkeztu ahal izango dira jatorrizko lanpostuan gutxienez bi urtetan zerbitzu efektiboak eskaini dituzten irakasle-	USLOn horrela jasota badago ere, gaizki adierazita dago. (“Puesto de origen” vs. “categoría de origen”). Bestela, jatorrizko

	<p>ikertzaileak, promozionatu nahi duten kategoriarako akreditazioa eman badiete agentzia independenteei.” paragrafoan, ordeztu “jatorrizko lanpostuan” “jatorrizko kategorian” terminoarekin.</p>	<p>lanpostua ulertu beharko litzateke irakasle interesatuak okupatzen duen agregatu, unibertsitate-titular edo ikertzaile doktore iraunkorra moduan. Hau da, berak bakarrik aurkeztu ahal izango luke promozio lanpostu horretara. Lehiarik ez litzateke posiblea izango. Beste inork ez luke posible izango aurkeztea.</p> <p>Gaizki adierazitako “puesto de origen” hori “categoría de origen” terminoarekin ordezkatzean bermatuko litzateke oso, katedra edo ikerketa-irakasle plazara aurkezten denak bi urte bete dituela agregatu, unibertsitate-titular edo ikertzaile doktore iraunkorra moduan; berez, logika duena.</p>
65	<p>“5. EHUK eleaniztasuna sustatuko du irakaskuntzan, eta euskararen erabilera bermatu eta bultzatuko du, Euskal Herriko hizkuntza den neurrian.” paragrafoa beste parágrafo honekin ordeztu:</p> <p>“Hizkuntza minorizatua den heinean eta EHUtik kanpo euskaraz dagoen unibertsitate mailako formazioaren eskaintza oso eskasa izanda, beste hizkuntza ofizial eta ez-ofizialetan irakaskuntza-eskaintzaz gain, euskara izango da lehenetsitako hizkuntza irakaskuntzarako.</p>	
76	<p>“3. Unibertsitateak ikertzeko askatasuna onartu eta bermatuko du, muga bakarra izango delarik arrazionaltasun zientifikoa errespetatzea eta zientzialariek onetsitako lege eta kode edo arau deontologikoen arabera jardutea, betiere, iruzurren kontrako jarraibideak barne hartuta.” Paragrafoa honako paragrafoarekin ordeztu:</p> <p>““3. Unibertsitateak ikertzeko askatasuna onartu eta bermatuko du, muga bakarra izango delarik arrazionaltasun zientifikoa errespetatzea eta zientzialariek <b>eta EHUKo Klaustroak</b> onetsitako lege eta kode edo arau deontologikoen arabera jardutea, betiere, iruzurren kontrako jarraibideak barne hartuta.”</p>	<p>“Zientzialariek” kontzeptu oso abstraktua da, baina “comunidad científica” ere, gaztelaniaz. Ez dago zehaztuta nortzuk eta nola. EHUKo Klaustroa askoz hautemangarria da.</p> <p>Adibidez, kode edo arau deontologikoari begira, Estatu sionistaren unibertsitate eta enpresekin ez kolaboratzeak ez du onetsi komunitate zientifikoa deritzon horrek. EHUKo Klaustroa, EHUKo komunitatearen gune zabala izanda, irizpideak markatzeko gune aproposa da.</p>
76	<p>“4. Aurreko apartatuan adierazitako mugen kalterik gabe, EHUKen Kode Etikokoan xedatutakoa bete beharko da ikerketa lan orotan. Ondorioz, unibertsitatean ez du lekurik izango giza eskubideen kontrako ekimenen parte den ezein jarduerak, ezta edonolako indarkeria babesten duen ezein ekimenek ere.” Paragrafoan, amaieran, esaldi hau gehitu: “Era berean, jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ezta, zehazki, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enpresekin zuzenean edo zehazka lan egin ere”.</p>	<p>Esaldi hori txertatutako dago azken urteetako EHUKo ikerketa proiektuen deialdien oinarrietan. Gehiketa beharrezkoa izango litzakete, espresuki ezartzen baitu ezin dela aritu armagizta enpresekin, zuzenean edo zeharka.</p>
76	<p>“5. EHUK euskararen erabilera bultzatuko du</p>	<p>Amaierako esaldi horrekin maila berean</p>

	<p>ikerketan eta dibulgazioan, arloa edozein delarik ere (zientifikoa, teknikoa, humanistikoa edo artistikoa). Era berean, jarduera horietan beste hizkuntza batzuen erabilera ere sustatuko du.” paragrafoan “Era berean, jarduera horietan beste hizkuntza batzuen erabilera ere sustatuko du.” esaldia kendu.</p>	<p>jartzen da euskararekiko bultzada eta beste hizkuntzen sustatzea, eta ez daude egoera berean. Euskara, minorizatutako hizkuntza da, eta bultzada behar du. Zientzian erabiltzen diren beste hizkuntzek ez dute sostengua behar; erabiliko dira zientzialariok erabiltzera behartuta gaudelako. Aldiz, kasu gehienetan, zientzialariok ez gaude behartuta euskara erabiltzera. Ikerketa-ibilbide osoa gara daiteke euskaraz ezer argitaratu gabe, baina ez ingelesez argitaratu gabe (espezialitate gehienetan).</p>
76	<p>“6. Unibertitateak ikerketaren bikaintasuna, diziplina artekotasuna eta nazioartera zabaltzea bultzatuko ditu, bai eta ikerketaren garapen egokia ere, horretarako edozein finantzabide erabilita.” paragrafoan kendu “horretarako edozein finantzabide erabilita.”</p>	<p>Aipamen hori kenduta puntuak bere zentzu bera mantentzen du, eta ez die atea irekitzen etikoki defendagarriak ez diren finantziabide batzuei. Irabazi asmoko “putre-funtsak” EHUko ikerketa jardueretan inbertitzea onartzeko prest gaude? Entitate sionista batek EHUrekin batera garatzeko ikerketa finantzatzea onartuko dugu?</p>
83	<p>“4. Kasuan kasuko kontratuan aurreikusitakoaren kalterik gabe, kontratu horiei jarraikiz eskuratzen diren ondasun eta ekipoak, oro har, ikertzen jardun duen sailari, institutuari, ikerguneari edo egiturari atxikita geratuko dira, lehentasunez, bertan diharduten irakasleek erabil ditzaten.” Paragrafoa honako paragrafoarekin ordeztu: “4. Kasuan kasuko kontratuan aurreikusitakoaren kalterik gabe, kontratu horiei jarraikiz eskuratzen diren ondasun eta ekipoak, oro har, ikertzen jardun duen sailari, <b>zentroari</b>, institutuari, ikerguneari edo egiturari atxikita geratuko dira, lehentasunez, bertan diharduten irakasleek erabil ditzaten. <b>Edozein kasutan, saila, zentro, institutu, ikergunea edo egituraren beste ikertzaileek ere erabili ahal izango dituzte.</b>”</p>	<p>Diru publikoarekin ordaindutako ondasun eta ekipoak unibertitate publikoan diharduen ikertzaileek erabiltzeko aukera izan behar dute, erabileran lehentasuna ondasun edota ekipo horiek lortu dituztenek lehentasuna izan arren.</p>
99	<p>Gehitu d) puntu bat: “d) Irakaskuntzako programazioan zehaztutakoaren arabera aukeratutako hizkuntza ofizialean ikastea eta ebaluazio probak hizkuntza horretan egitea. Bereziki, lanbidearen ezaugarriak direla eta hizkuntza aniztasunean diseinatutako graduak salbu, bermatuko da graduak euskaraz egin ahal izango direla, derrigorrezko zein hautazko kreditu kopuru nahikoa euskaraz egin ahal izateko.</p>	<p>Deigarria da hizkuntza eskubideen artean euskaraz ikasteko eskubidea ez egotea, ezta ebaluazio probak euskaraz egiteko eskubidea jasotzea.</p> <p>Are gehiago oraingo estatutuetan bi eskubide horiek espresuki txertatuta baitaude.</p> <p>Horregatik eskatzen da bi eskubide horiek mantentzea, baita bigarren esaldi hori gehitzea.</p>
131	<p>131 artikulua.- <i>Baliabide materialak eta finantziazioa</i></p>	<p>Ezinbestekoa da bermatzea lan administratiboak egiteko TEKAZEL nahikoak sailetan. Gaur egun profil horren</p>

	Gehitu: "Sail bakoitzak TEKAZEL langile bat izango du lan administratiboak egiteko 20 irakasle-ikertzaile iraunkorreko"	TEKAZEL asko falta dira, eta IRI gehienek administratzaile batek egin beharko lituzkeen lan batzuk egiten dituzte, eta horrek beste aktibitateetarako denbora kentzen du.
153	"2. Irakasle-ikertzaileen kidego desberdinek eta teknikariek eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileek Klaustroan eta ikastegietako batzarretan izan beharreko ordezkariak sei urterako hautatuko dira." Aldatu eta lau urterako hautatuko direla txertatu.	Orokorrean, sei urteko indarraldien kontra gaude. Aproposagoa da lau urteko epeak eta beste lau urterako berriz aukeratua izateko posibilitatea. USLOk behartzen du kide bakarreko organoak sei urteetarako izatea, eta ezin izango dira berriztu. Kide anitzeko kideen kasuan ez dago muga hau. Beraz, sei urte epe luzeegia izanda, proposagoa da 4 urtero kideak aldatzea. Unibertsitatea komunitate dinamikoa da. Beraz, komunitatean dauden aldaketak maiztasun handiagoarekin txertatzea lehenetsi behar da; hau da, 4 urtero.
155	"2. Gizarte Kontseiluko kide dira honako hauek: errektorea, idazkari nagusia eta gerentea, bai eta, gutxienez, irakasle-ikertzaile bat, teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen taldeko kide bat, biak ala biak Gobernu Kontseiluak bere kideen artetik aukeratuak, eta ikasle bat ere, Ikasle Kontseiluak bere kideen artetik aukeratutakoa. Hitza eta boto eskubidea izango dute guztiek."  Idazketa aldatu, honako honekin ordezkatzeko: "2. Gizarte Kontseiluko kide dira honako hauek: errektorea, idazkari nagusia eta gerentea, bai eta, gutxienez, 7 irakasle-ikertzaile, teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen taldeko 3 kide, biak ala biak Gobernu Kontseiluak bere kideen artetik aukeratuak, eta Ikasle Kontseiluak bere kideen artetik aukeratutako hiru kide. Hitza eta boto eskubidea izango dute guztiek."	EHUko gizarte kontseiluaren plenoak 26 kide dauka. EHUko kideak 6 baino ez izateak uzten du EHU gutxiengo argi batean, non EHUtik kanpoko beste interesek baldintza ditzakete era oso nabarmenean hartutako erabakiak. Hori dela eta, EHUko kideen ordezkaritza handitzea eskatzen da. Horretarako, EHUko Gizarte kontseiluaren araudia bera ere aldatu beharko litzateke.
156	"1. Unibertsitateko ordezkaritza organo gorena da Klaustroa. Bere eskumenei lotuta ematen dituen ebazpenak lotesleak dira kide anitzeko gainerako organoentzat."  Ordeztu honekin: "1. Unibertsitateko ordezkaritza, <b>parte-hartze eta erabaki</b> organo gorena da Klaustroa. Bere eskumenei lotuta ematen dituen ebazpenak lotesleak dira kide anitzeko gainerako organoentzat."	
156	"irakasle-ikertzaile iraunkor" aipatzen denean aldatu "irakasle-ikertzaile iraunkor doktore" kategoriarekin, eta irakasle iraunkor ez doktoreak "irakasle-ikertzaile ez-iraunkor" taldean sartu.	Irakasle-ikertzaile ez-iraunkor taldean doktore asko daude, irakasle iraunkor ez doktoreek baino maila akademiko altuago dutenak.

159	<p>“3. Klaustroaren ezohiko bilerarako deia, berriz, honako hauek egin dezakete: Gobernu Kontseiluak, erabaki baten bidez, edo Klaustroko kide hautetsien laurden batek.”</p> <p>Aldatu azken zatia eta modu honetan jarri: “edo Klaustroko kolektibo baten gehiengoak eskatuta. Zentzu honetan, kolektibo batzuen ordezkarien kopuru txikia kontuan hartuta, irakasle-ikertzaile ez iraunkorrak, ikertzaile ez-iraunkorrak eta irakasle elkartuak, kolektibo bakar moduan hartuko lirатеke”.</p>	<p>Estatutu berrietan klaustrokideen laurden baten sinadurak jasotzeak zailtzen du nabarmen Klaustroa deitzeko aukera. Alde batetik, klaustrokide askoren parte-hartzerik ez dagoelako (behin aukeratuta lehenengo Klaustro saiora joaten dira bakarrik) eta, beste alde batetik, Klaustroan minorizatuta dauden kolektiboen eskaerek entzunda izateko zailtasun handiagoak daukatelako (beste kolektiboen kideen inplikazioa eskatzen dute, eta interes kontrajarriak egon daitezke gai batzuetan).</p>
160	<p>“1. Unibertsitateko Klaustroak, klaustrokide hautetsien heren baten eskariz ezohiko bileran bilduta (bertan daudelarik, gutxienez, irakasle-ikertzaile iraunkoren % 30), errektorea aukeratzeko hauteskundeetarako deia egin ahal izango du, bertaratutako klaustrokideen bi herenek ontzat joz gero. Proposamenak aurrera egiten badu, Klaustroa desegin egingo da eta errektoreak kargua utziko du, baina jardunean jarraituko du harik eta errektore berriak kargua hartu arte.”</p> <p>Ordezkatu testu honekin: ““1. Unibertsitateko Klaustroak, klaustrokide hautetsien <b>laurden</b> baten eskariz ezohiko bileran bilduta (bertan daudelarik, gutxienez, irakasle-ikertzaile iraunkoren % 25), errektorea aukeratzeko hauteskundeetarako deia egin ahal izango du, <b>bertaratutako</b> klaustrokideen % 60-k ontzat joz gero. Proposamenak aurrera egiten badu errektoreak kargua utziko du, baina jardunean jarraituko du harik eta errektore berriak kargua hartu arte.”</p>	<p>Erraztu errektorerako hauteskundeak deitu ahal izatea, bai eskaera Klaustroa eramateko baita onartua izateko ere. % 60-ra heltzeak komunitatearen gehiengo zabal baten sostengua islatzen du. Era berean, zehaztu behar da bertaratutako klaustrokideei aipamena egiten zaiela. Beste alde batetik, errektorerako hauteskundeetara deitzeak ez du Klaustroaren desegitea ekarri behar. Eskatzen da errektorea aldatzea, ez Klaustroa aldatzea.</p>
163	<p>“2. Gobernu Kontseiluaren kasuan kasuko saioari dagozkion deialdia, aztergaien zerrenda eta akta unibertsitateko kide ororen eskura jarriko dira, Gobernu Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko arautegian xedatzen den eran.”</p> <p>Testuan, “dokumentuak” ere txertatu, modu horretan uzteko: ““2. Gobernu Kontseiluaren kasuan kasuko saioari dagozkion deialdia, aztergaien zerrenda, <b>dokumentuak</b> eta akta unibertsitateko kide ororen eskura jarriko dira, Gobernu Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko arautegian xedatzen den eran.”</p>	<p>Datu pertsonalak ez dauzkaten dokumentuak ere eskuragarri egon behar dira, gaiak beharrezko zehaztasunarekin aztertu ahal izateko.</p>
166	<p>“3. Lehenengo txandan errektore aldarrikatuko da boto baliodunen erdiak baino gehiago biltzen dituen hautagaia, behin honako haztapan hauek aplikatuta:</p> <p>a) Irakasle-ikertzaile doktore iraunkorrak: % 51.</p>	<p>“Irakasle-ikertzaile ez-doktoreak eta irakasle-ikertzaile ez-iraunkorrak” kolektiboa oso heterogeneoa da. Klaustroko zein Gobernu kontseiluko ordezkartzan ezberdintzen dira azpi-kolektibo horiek.</p>

	<p>b) Irakasle-ikertzaile ez-doktoreak eta irakasle-ikertzaile ez-iraunkorrek: % 6. c) Unibertsitateko gradu, master, doktorego programa edo berezko titulu batean matrikulatutako ikasleak (gradu-ko titulazio ofizialei lotutako berezko titulu-etan matrikulatutakoak izan ezik): % 29.”</p> <p>Aldatu %-ak, modu honetan geratzeko: “3. Lehenengo txandan errektore aldarrikatuko da boto baliodunen erdiak baino gehiago biltzen dituen hautagaia, behin honako haztapen hauek aplikatuta: a) Irakasle-ikertzaile doktore iraunkorrek: % 51. <b>b) Irakasle-ikertzaile ez-iraunkorrek: % 4.</b> <b>c) Ikertzaile ez-iraunkorrek: % 2</b> <b>d) Irakasle elkartuak: % 1</b> e) Unibertsitateko gradu, master, doktorego programa edo berezko titulu batean matrikulatutako ikasleak (gradu-ko titulazio ofizialei lotutako berezko titulu-etan matrikulatutakoak izan ezik): % 28.”</p>	<p>Beraz, aproposa da gainerako hauteskunde prozesuetarako ezberdin tratatzea. Kontuan hartu behar da, gainera, multzo orokor horretan sartutako irakasle asko (elkartuak nagusiki) ardurali partzialean aritzen direla eta beren aktibitate nagusia ez dagoela EHU-n. Beren botoa ezin ezin da parekatu arduraldi osoan EHU-n aritzen diren beste IRI horiekin. Kolektiboen arteko erlazioa aproposagoa izateko, gehitu da % 1 ikasleen ordezkari-tza % 29tik % 28ra jaitziz.</p>
174	<p>“2. Campuseko Batzarraren osaera Ikastegi eta Egituren Arautegi Orokorrean zehaztuko da, estatutu hauen mugen barruan. Nolanahi ere, kontseiluko kide izango dira campuseko errektoreordea, campuseko idazkaria eta haren zuzendaritza taldeko gainerako kideak.”</p> <p>Ordeztu honekin: ““2. Campuseko Batzarraren osaera Ikastegi eta Egituren Arautegi Orokorrean zehaztuko da, estatutu hauen mugen barruan. Nolanahi ere, kontseiluko kide izango dira campuseko errektoreordea, campuseko idazkaria eta haren zuzendaritza taldeko <b>beste kide bat.</b>”</p>	<p>Ezin da utzi zehaztu gabe zenbat zuzendaritza kide izango diren, kopuru horrek afektatzen baitu Campuseko batzarraren osaerari. Proposamena: errektoreorde eta idazkari-az gain, beste kide bat izatea. Kide horiek, gainera, ez dira izendatuak izan. Gainerako guneetan dauden kide natoak aurkeztu dira eta aukeratuak izan dira. Zuzendaritza-ko kide hauek ez.</p>
174	<p>“Batzarreko kide gehienak irakasle funtzionarioak eta EHUko lan kontratadun irakasle iraunkorrek izan beharko dira, eta kideen ehuneko 25, gutxienez, ikasleak. Era berean, bermatuko da campusean egoitza duten sail, ikerketa institutu eta bikaintasuneko ikerguneen ordezkari-tza, bai eta Klaustroko hauteskunde taldeena ere.”</p> <p>Ordeztu honekin: ““Batzarreko kide gehienak irakasle funtzionario <b>doktoreak</b> eta EHUko lan kontratadun irakasle iraunkor <b>doktoreak</b> izan beharko dira, eta kideen ehuneko 25, gutxienez, ikasleak. <b>Gainerako irakasle eta ikertzaileek ordezkarien % 11 izango dira, gutxienez. TEKAZEL kolektiboko kideak % 13 izango dira, gutxienez.</b>”</p>	<p>Sailek, ikerketa institutu eta bikaintasuneko ikerguneek ez dute zertan ordezkari-tza izan behar. Egitura horien kideak aurkeztu daitezke campus batzarrera, eta dagokien kolektiboan atera. Ordezkari guztiek sail, institutu edo ikergune batean daude. Gainera, kasu askotan, sailka edo zentroka antolatzen dira aurkezteko.</p> <p>Beste alde batetik, kolektibo bakoitzaren ehunekoa zehaztu behar da. Kolektiboen arteko ordezkari-tzaren ehunekoak berberak izan behar dira campusen artean.</p> <p>Era berean, “Klaustroko hauteskunde taldeen” ordezkari-tza bermatzea ez du zertan horrela izan behar. USLOk ez du behartzen kolektibo horiek, adibidez, elkartuek campus batzordeetan</p>

		<p>ordezkaritza izatera (bai, orde, Klaustroan eta Gobernu kontseiluan). Campus batzarraren ordezkari kopurua txikiagoa izanda, aproposa ikusten da irakasle-ikertzaile ez iraunkorrek, irakasle-ikertzaile iraunkor ez doktoreak, ikertzaile ez iraunkorrek eta elkartuak multzo batean batzea, Klaustro eta Gobernu kontseiluan suposatzen duten ehunekoarekin parekatuz.</p>
178	<p>“2. Ikastegiko Batzarraren osaera Ikastegi eta Egituren Arautegi Orokorrean zehaztuko da, estatutu hauen mugen barruan. Nolanahi ere, batzarreko kide izango dira dekanok edo zuzendaria, idazkari akademikoa eta zuzendaritza taldeko gainerako kideak, bai eta ikastegiko ataletako koordinatzaileak ere, baina ezin izango dira izan kideen % 25 baino gehiago.</p> <p>Batzarreko kide gehienak irakasle-ikertzaile iraunkorrek izan beharko dira, eta kideen ehuneko 29, gutxienez, irakasleak. Halaber, Klaustroko gainerako hauteskunde taldeak bertan ordezkaturik egotea bermatu beharko da.” Paragrafoa honako honekin ordeztu:</p> <p>“2. Batzarreko kide izango dira dekanok edo zuzendaria, idazkari akademikoa eta zuzendaritza taldeko gainerako kideak, bai eta ikastegiko ataletako koordinatzaileak ere, baina ezin izango dira izan kideen % 20 baino gehiago.</p> <p><b>Kolektiboen ordezkariak honako hau izango da:</b>  <b>Irakasle-ikertzaile iraunkor doktoreak % 51</b>  <b>Irakasle-ikertzaile iraunkor ez doktoreak eta irakasle-ikertzaile ez iraunkorrek: % 7</b>  <b>Ikertzaile ez iraunkorrek eta irakasle elkartuak: % 4</b>  <b>TEKAZEL: % 13</b>  <b>Ikasleak: % 25”</b></p>	<p>Zehaztu behar da kolektibo bakoitzaren ehunekoa. Horretarako, lehenesten da Klaustroko ordezkari sistema, irakasle elkartuak ikertzaile ez iraunkorren kolektiboan gehituta (USLOk ez du zehazten elkartuek zentroetan ordezkariak berezitu behar dutenik).</p> <p>Irakasle-ikertzaile iraunkor doktoreak % 51  Irakasle-ikertzaile iraunkor ez doktoreak eta irakasle-ikertzaile ez iraunkorrek: % 7  Ikertzaile ez iraunkorrek eta irakasle elkartuak: % 4  TEKAZEL: % 13  Ikasleak: % 25</p> <p>Fakultate eta eskola guztietan, kolektiboen arteko ordezkariak proportzio berberak mantendu behar dira.</p> <p>Era berean, Dekanotza taldearen ordezkariak % 20ra jaitea proposatzen da, erabakiak modu irekiago eta demokratikoagoan hartu ahal izateko.</p> <p>Kolektibo ezberdinen ordezkariak Estatutuaren txertatu behar da, Klaustroko Estatutuak onartzean ehunekoak ezarrita geratzeko, nahiz eta, aurrerago, Ikastegi eta Egituren Arautegi Orokorrean alderdi gehiago zehaztu.</p>
178	<p>3. Ikastegi eta Egituren Arautegi Orokorrean arautuko da Ikastegiko Batzarraren funtzionamendua eta haren deialdi eta bileren maiztasuna. Bere eginkizunak betetzeko, batzarrak osoko bilkuran edo batzorde iraunkor baten bitartez jardun ahal izango du, hurrengo artikuluan zehazten den moduan. Batzorde Iraunkorrean kidegoek Ikastegiko Batzarrean dauzkaten ordezkarien ehuneko berberak izango dituzte.” paragrafoari honako esaldi hau gehitu amaieran:</p> <p>“Batzorde Iraunkorra erabiliko da bakarrik deialdiaren premiak eskatzen duenean eta Ikastegiaren Batzarra quorum minimora helduko</p>	<p>Zentroaren batzarra ordezkariak zabalagoa dago. Beraz, parte-hartzea handiagoa izan daiteke eta erabakiak hartzeko orduan demokratikoagoa da. Zentro eta sail batzuetan egiten da batzorde iraunkorren gehiegizko erabilera eta eraman daitezke gai arantzatsu batzuk eztabaida gutxiago sortzeko.</p>

	ez dela aurreikusten denean. Edozein kasutan, lehenetsiko da erabakiak Ikastegiaren Batzarrean hartzea.”	
178	<p>“<b>178. artikulua.- Izaera, osaera eta funtzionamendua</b>” atal honetan txertatu gaurko Estatutuetan agertzen diren parágrafo hauek:</p> <p>“2. Ikastegiko Batzarrak ohiko hiru bilera egingo ditu, gutxienez, urtean. Ezohiko bilerak, berriz, batzarkideen laurden batek edo kidego bateko kide guztiek hala eskatzen dutenean egingo ditu.</p> <p>3. Bileren aktak ikastegiko arautegiak zehazten duen moduan zabalduko dira eta ikastegiko kide guztien esku jarriko dira.”</p>	Ikastegietako araudi orokorrean zehaz badaiteke ere, aproposagoa da alderdi hauek Estatutuetan bertan txertatzea.
179	<p>“2. Artikulu honetako lehen apartatuan aipatutako eginkizunak osoko bilkurak nahiz Batzorde Iraunkorrek bete ahal izango ditu, e), f) eta h) letretakoak izan ezik.” Paragrafoa honako parágrafo honekin ordeztu:</p> <p>“2. Artikulu honetako lehen apartatuan aipatutako eginkizunak osoko bilkurak nahiz Batzorde Iraunkorrek bete ahal izango ditu, <b>a), d), e), f)</b> eta h) letretakoak izan ezik.”</p>	Lanpostuei lotutako gaiak batzuetan arantzatsuak dira. Hori dela eta, aproposagoa da bi eginkizun horiek (a eta d) Ikastegiaren Batzarrean eztabaidatzea eta onartzea, organo zabalagoa eta demokratikoagoa izanda.
180	<p>“2. Zuzendariak eta dekanok sufragio unibertsalez hautatuko dira ikastegiari atxikitako irakasle-ikertzaile iraunkorren artetik, estatutu hauen eta Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorraren arabera. Errektoreak izendatuko ditu kargurako.”</p> <p>Ordeztu honekin:</p> <p>“2. Zuzendariak eta dekanok sufragio unibertsalez hautatuko dira ikastegiari atxikitako irakasle-ikertzaile iraunkor <b>doktoeen</b> artetik, estatutu hauen eta Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorraren arabera. Errektoreak izendatuko ditu kargurako.”</p>	
180	<p>“4. Dekano edo zuzendariak kargua uzteko arrazoi izango dira honako hauek: heriotza, ezgaitzea, desgaitzuntza, dimisioa, EHUko kide izateari uztea eta agintaldia amaitzea. Zentsura mozio bat onartzen bada, halaber, kargua utzi beharko dute, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorraren arabera.”</p> <p>Paragrafoa honako parágrafo honekin ordeztu:</p> <p>“4. Dekano edo zuzendariak kargua uzteko arrazoi izango dira honako hauek: heriotza, ezgaitzea, desgaitzuntza, dimisioa, EHUko kide izateari uztea, agintaldia amaitzea <b>edo zentsura mozio baten bidez kargutik kendua izatea</b>. Zentsura mozioa egiteko ikastegiaren batzarraren heren batek ezohiko bilerarako deia egin beharko du zentsura mozioari buruzko bozketa egiteko; batzarkideen bi herenek aldeko botoa emanez gero, zentsura mozioak aurrera</p>	Campuseko errektoreordea kargutik kentzeko 173. Artikuluan jasotzen den prozedura bera erabiltzea proposatzen da.

	egingo du.”	
185	<p>“Bere eginkizunak betetzeko, kontseiluak osoko bilkuran jardun ahal izango du, edo, bestela, batzorde iraunkor baten bitartez, hurrengo artikuluan zehazten den moduan. Batzorde Iraunkorrean kidegoek Ikastegiko Batzarrean dauzkaten ordezkarien ehuneko berberak izango dituzte.” paragrafoari honako esaldi hau gehitu amaieran:</p> <p>“Batzorde Iraunkorra erabiliko da bakarrik deialdiaren premiak eskatzen duenean eta Sailaren Batzarra quorum minimora helduko ez dela aurreikusten denean. Edozein kasutan, lehenetsiko da erabakiak Sailaren Batzarrean hartzea.”</p>	
185	<p>“2. Ikastegiko Batzarraren osaera Ikastegi eta Egituren Arautegi Orokorrean zehaztuko da, estatutu hauen mugen barruan. Nolanahi ere, kontseiluko kide izango dira saileko zuzendaria, idazkari akademikoa eta zuzendaritza taldeko gainerako kideak.</p> <p>Beste kide gehienak irakasle-ikertzaile iraunkorrak izango dira, eta kideen ehuneko 25, gutxienez, ikasleak.”</p> <p>Paragrafoa honako parágrafo honekin ordeztu:</p> <p>“2. <b>Sailaren</b> Batzarraren kide izango dira saileko zuzendaria, idazkari akademikoa <b>eta sailaren atalen arduradunak. Irakasle-ikertzaile iraunkor guztiak Sailaren kontseiluaren kideak izango dira, ordezkartzaren % 51a izanda. Gainerako kolektiboek honako ordezkartza izango dute:</b></p> <p><b>Irakasle-ikertzaile ez iraunkorrak: % 7</b> <b>Ikertzaile ez iraunkorrak eta irakasle elkartuak: % 4</b> <b>TEKAZEL: % 13</b> <b>Ikasleak: % 25”</b></p>	<p>Zehaztu behar da kolektibo bakoitzaren ehunekoa. Horretarako, lehenesten da Klaustroko ordezkartza sistema, irakasle elkartuak ikertzaile ez iraunkorren kolektiboan gehituta (USLOk ez du zehazten elkartuek sailetan ordezkartza berezitua izan behar dutenik):</p> <p>Irakasle-ikertzaile iraunkor doktoreak % 51 Irakasle-ikertzaile iraunkor ez doktoreak eta irakasle-ikertzaile ez iraunkorrak: % 7 Ikertzaile ez iraunkorrak eta irakasle elkartuak: % 4 TEKAZEL: % 13 Ikasleak: % 25</p> <p>Sail guztietan, kolektiboen arteko ordezkartza proportzio berberak mantendu behar dira.</p>
186	<p>“2. Artikulu honetako lehen apartatuan aipatutako eginkizunak osoko bilkurak nahiz Batzorde Iraunkorrak bete ahal izango ditu, a) letrakoak izan ezik.”</p> <p>Paragrafoa honako parágrafo honekin ordeztu:</p> <p>“2. Artikulu honetako lehen apartatuan aipatutako eginkizunak osoko bilkurak nahiz Batzorde Iraunkorrak bete ahal izango ditu, a), c), d), f), h) letrakoak izan ezik.”</p>	<p>Gaien garrantziagatik eta suerta daitezkeen eztabaidengatik, salbuespen batzuk gehitu behar dira, horietako garrantzitsuena “h)” izanda. Sailaren batzarra Batzorde iraunkorra baino organo zabalagoa eta demokratikoagoa da.</p>
185	<p>“<b>185. artikulua.- Izaera, osaera eta funtzionamendua</b>” atal honetan txertatu gaurko Estatutuetan agertzen diren parágrafo hauek:</p> <p>“Saileko Kontseiluak ohiko bilera egingo du urtean behin gutxienez, eta ezohiko bilera egingo du kideen heren batek edo kidego bateko kide guztiek hala eskatzen dutenean.”</p>	<p>Ikastegietako araudi orokorrean zehaz badaiteke ere, aproposagoa da alderdi hauek Estatutuetan bertan txertatzea.</p>

	<p>Horrez gain, gehitu parágrafo hau ere: “Bileren aktak saileko kide guztien esku jarriko dira.”</p>	
187	<p>“2. Saileko zuzendaria kontseiluko kide guztiek hautatzen dute sufragio unibertsalez irakasle-ikertzaile iraunkorren artetik, estatutu hauei eta Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorri jarraikiz.” Paragrafoa honako parágrafo honekin ordeztu: “2. Saileko zuzendaria kontseiluko kide guztiek hautatzen dute sufragio unibertsalez irakasle-ikertzaile iraunkor <b>doktoreen</b> artetik, estatutu hauei eta Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorri jarraikiz.</p>	
187	<p>“4. Zuzendariak kargua uzteko arrazoi izango dira honako hauek: heriotza, ezgaitzea, desgaitzuntza, dimisioa, EHUko kide izateari uztea eta agintaldia amaitzea. Zentsura mozio bat onartzen bada, halaber, kargua utzi beharko dute, Ikastegi eta Egituren Arautegi Orokorren arabera.”  Paragrafoa honako paragrafoarekin ordeztu: “4. Zuzendariak kargua uzteko arrazoi izango dira honako hauek: heriotza, ezgaitzea, desgaitzuntza, dimisioa, EHUko kide izateari uztea, agintaldia amaitzea <b>edo zentzura mozio baten bidez kargutik kendua izatea</b>. Zentsura mozioa egiteko sailaren batzarraren heren batek ezohiko bilerarako deia egin beharko du zentsura mozioari buruzko bozketa egiteko; batzarkideen bi herenek aldeko botoa emanaz gero, zentsura mozioak aurrera egingo du.”</p>	<p>Campuseko errektoreordea kargutik kentzeko 173. Artikuluan jasotzen den prozedura bera erabiltzea proposatzen da.</p>